

EGITARRAUA



MIN TE GI A



2020
URTARRILA
MAIATZA

BAIONA
EUSKAL MUSEOA
XOKOA GELA



SAR HITZA



Frantziako Kultura ondare immaterialaren Batzorde Nazionalak Euskal Kultur Erakundeak (EKE) eta EHES (Gizarte Zientzietako Goi Mailako Ikasketen Eskola) eskolak aurkeztu partaidetzari « Ethnopôle basque - Euskal Etnopoloa » labela eman dio 2017ko urtarrilaren 12an. Horren kariatara, **2019-2020an, EKE-k, EHES eskolarekin partaidetzan (Georg Simmel Zentroa), zortzi mintzaldiz osatu hirugarren mintegia antolatzen du. 2020ko urtarriletik maiatzera, lau hitzordu izanen dira, dohainik eta deneri irekiak.**

 **URTARRILAREN 23A, OSTEGUNA**

 **18:00-20:00**

Txalaparta: musika praktika baten azterketa kritikoa

Euskal kulturaren eta musikaren ikur indartsu bat bilakatu da txalaparta azken hamarkadetan. Argibel Euba Ugartek haren inguruko azterketa osatua eta kritikoa eskaintzea du helburu hitzaldi honetan, dimentsio historiko, sozial eta kulturalak azpimarratuz.

Argibel EUBA UGARTE, irakaslea eta etnomusikologian ikerlaria

Euskaraz, bat-bateko itzulpena frantsesez

 **OTSAILAREN 27A, OSTEGUNA**

 **18:00-20:00**

Euskaldunak eta Amerindianoak Kanadan XVI. mendean

Mintzaldi honetan, Laurier Turgeonek XVI. mende osoan Euskaldunek Kanadan ukan zuten aktibitate handia (bakalau arrantza, bale ihizia, larru trafikoa Amerindianoekin) eta honen bilakaera aipatuko ditu. *Frantzia-Berriaren historia bat: Frantsesak eta Amerindianoak XVI. mendean (Une histoire de la Nouvelle-France: Français et Amérindiens au XVIe siècle)* izeneko bere liburuan oinarrituko da.

Laurier TURGEON, irakaslea Quebec-eko Laval Unibertsitatean

Frantsesez, bat-bateko itzulpena euskaraz

 **APIRILAREN 16A, OSTEGUNA**

 **18:00-20:00**

Euskal rap musikaren hausnarketa antropologiko historikoa

Rapa Euskal Herriko musika alternatiboen eszenan bere lekua ari da egiten. Eric Dicharryren iduriko, euskal raparen mugimendua ikertzea oso garrantzitsua da aldaketa politiko-sozialek eta estetika musikalaren birmoldatzeak dituzten bide paralelo eta gurutzatuak hausnartzeko.

Eric DICHARRY, antropologian doktorea eta ikertzaile independentea

Euskaraz, bat-bateko itzulpena frantsesez

 **MAIATZAREN 7A, OSTEGUNA**

 **18:00-20:00**

Paisaia eta lurraldetasuna Euskal Herrian: bilakaera baten historia

Herrialde orok badu bere paisaia, kultura eta bilakaera historikoaren ondorioz sortua. Euskal Herriari dagokionez, paisaiaren gaiak indarra hartzen du XIX. mende amaieratik aurrera. Bide batez, paisaia eta euskal nortasunaren arteko harreman estua ematen da. Maitane Ostolazak euskal paisaiarekin zerikusia duten diskurtso eta praktiketara hurbiltzea izango du helburu, lurraldetasunaren ikuspegitik abiatuz.

Maitane OSTOLAZA, Irakaslea Nanteseko Unibertsitatean

Euskaraz, bat-bateko itzulpena frantsesez

ARGIBIDEAK

Euskal Kultur Erakundea

Lota Jauregia

64 480 UZTARITZE

www.eke.eus | www.ethnopoloa.eus

0 (033) 5 59 93 25 25

info@eke.eus



HELBIDEA

EUSKAL MUSEOA

36 Kortsarioen Kaia

64 100 BAIONA

ANTOLATZAILEAK



BASQUE ANTHROPOLOGICAL
RESEARCH INSTITUTE
on Music, Emotion and Human Societies

PARTAIDEAK

